



UDAZKENA

I

III

Eguzkia kizkaltzu aruntz urrunduta, laño-tartian ilun dator udazkena: turmoyak ta lañuak mendietan bera beren eñai bustian dakarte txingora.

¿Txinara etxezale, nora juan zara nire ley uan aurtin kabia zenduna? Nunbait otzan bildurez neguan igeska argi ta bero-zale itxas-aruntz zara!

II

IV

¿Zergaitikan ez dute abesten txoriak udaberin beñtzu abesten zutena? Ekaitz-bildurez daude sasian gordeta, aiziak jausten dau-ta zugaitzen jantzia.

Itxaropen ezitsu gozua galduta, gizonaren gona ilun gelditzen da: biotz-baruan dankan liztofan eztenka arpegian dagañku malakoaz bustita.

V

Alan udazkenak be eraiko lizuna ilun agertzen digu txingorez beteta. Lorak igafu ziran, ixildu txoria, odei-tartian ilun dator udazkena.

AGERE.

Beti euzkeraz

Euzkotar euzkeldunok beti euzkerea erabili biar genduke, gabil-tzan leku gustijetan; euzko-urijetan bai-beintzat.

Euzkeldunak beti euzkerea erabilten ba-zuten, etzan orain ikusiko gure aitian arkitzen dan lotsagarizko negaigafitza.

Euzkeldunak beti ageftu dira otzak edo ardura-gabiak, euzko-gauzetan, batez-ere euzkerea erabiltzen erabili leikian lekuetan. Gero ora emen, nabañkeri ori dala-ta, iritxi zaigun zoritxafa. Etxetik atera-ekero, inork edu uste euzkeraz mintzatu biar danik. Denda batera jaftzen ba-da, erderaz egingo du bere eskakizuna, ondo ezpa-daki ere. Jatetxe batera saftzen ba-da berdin. ¿Zergatik ori? Burugabiak ger-alako. Euzkeldun bat lotzatu egiten da uri nagusi batian euzkeraz mintzatzan, eta erderaz gaizki egiten ezta lotzatzen... ¡Ene, ori, bai-dala lotsagaritza!

Euzkerea gal-zorijan aurkitu ba-da, eruba ezta motzena; euzkeldun buru-gabiak dira oren erudunak. Beraz, euzkeldunak dira euzkerea, beren izkuntza, ostikoperatu eta gal-zorira ekari dutenak.

Euzkotaren burugabetasunak galdu zuan euzko-aberiyaren azkatasuna eta jabetasuna; onela ba-guaz, euzkotaren burugabetasunak galduko du euzkerearen izakera guziya.

¡Esnatu, euzkotarak, esnatu! Norbere gauza bat erabiltzeko lotsarik ezta biar; gerona, Jaungoikua'k geroi emandako gauzabat utsita ordeze beste bat erabiltziaz ¡ofetan bai lotsatu biar degula!

ZELETA.

A ROTZALIAK

Zerbait ba-daukat eriko neskatiletzaz itz-egiteko, ezin egon naizela lako egi aundi abek esan-gabe, ta berak ere jakitia biferkoa dute.

Emen ere saftu zayote, eri askotan bezela, beren buruak erakutsi-naya. Iruditzen zayote takoi aundidun ofetakoak eta janzki dotoriak jantzi-ekero, berari begira daudela guziyak.

Ez diyote ajolik arotza izan ere, edozenekin ibiltzeko, dotore jantzita ba-dago. Ofelako neskatilak asko daude er-iyen.

Jakiña da zein oiturak izango dituzten muli gaste oyek, bat madrila-tara ta bestia majalanduntara, eta abar ta abar.

Jeisten dirade soñua jotzen duten plazara ta jakina! lendabizi tan-boliña jotzen dute, ta begira jarita esaten zayote alkañeri: «*Cómo bailan esos jebos!*» eta algara-egitaz begira daude biyak beren buruak aundi egitaz.

Gero jotzen du erespatzak *txotts* edo olako eresi bat, eta biyak bai-dijaz beren buruak erakustera urde-dantza oyetan. Erespatza bukatzian, pozez beterik daude berarekin ibili-aldi bat egiteko.

Eta erderaz egiten dute *piño* dalako; ta ortik dabiltz, kalia gutxigi dutela, oldozturik bere aitian: «*Jcauquiera me tuersel!*»

Arpegiyan *drogueri* bat daramatela dirudi. Nik ikusi nai nuke ofen etxean nolako usaña dagon.

Utzi ditzazute oitura madarikatu oyek eta eritar guziyak maitatu dezagun alkañi, alkañ anayak lez, ta orduan iritziko zaigu guziyo zor-iona.

Au irakurten ba-dute zarauztañ neskatilak esango dute: «¿zer ajola ete-zayo oferi? Ouk nai deguna egingo degu.» Bai, baña nai ez dezuten iritxiko zazute jaraitzen ba-dezute bide ortatik.

MENDI-LAUTA.

LA REBEYA

(IPUYA)

Lañebei gustiz afoxko bat udaberi egun alayan ari zan jabiaren aurka jaririk mendi-malkarian:

—Zer uste dek, gizon kaskara, eure menpekora naukela...? ¿ire ukuñuan ni saftzia neure azkatasuna utzita?

Mendi eta baso zabalak, diñkiyat bai neure ibil-toki: otan zidak udaberiak zer jana txit ugari jari, zuaitz jantziyak gorde-leku, eguraldi onak pozkari,

ez eyok ba alpefikan deitu euregana lañebeyari.

Ta atzeko anak aztinduz, mañuza egitaz txit aro, igo zan alai mendiz gora an beti azke bizitzeko,

Eldu zan baña negu latza jantziarik mendiyak elufez, jai! lañebeya gaizki zegon orduan otzak eta gosez.

Orela, zerbait uspel-bila jetxi zan beriz malkafera, ta jabe-deyai jaraiturik saftu zan otzan ukulura.

Agitz, onaroen ero-ero ezetsitako ainbat gauza, etofen gera ezaldian apal-apalki onafizera.

TENE.

